

INDUSTRIA TEKNOLOGIAREN INGENIARITZAKO GRADUA

GRADU AMAIERAKO LANA

***JARIAKIN TERMIKO BATEN HOZKETARAKO
HEGALDUN HODI BIKOITZEKO BERO
TRUKAGAILU BATEN DIMENTSIONAKETA***

Ikaslea: Dudagoitia Bollada, Markel

Zuzendaria: Urbicain Pelayo, Miren Karmele

Curso: 2018-2019

Data: Bilbon, 2019ko ekainaren 27an

Aurkibidea

NOMENKLATURA	5
ALDAGAIK	5
AZPIINDIZEAK	6
LABURPENA.....	9
1. SARRERA.....	11
2. TESTUINGURUA	12
2.1 ERREFRIGERAZIO SISTEMAK	12
2.2 BERO TRUKAGAILUAK	12
2.3 BERO TRUKAGAILUAK ESKALA ERTAIN-TXIKIAN	13
2.4 HODI BIKOITZEKO BERO TRUKAGAILUAREN ERABILERA.....	13
3. HELBURUAK ETA IRISPENA.....	15
3.1 HELBURUAK.....	15
3.2 IRISPENA	15
4. PROIEKTUAREN ABANTAILAK	17
5. ALTERNATIBEN ANALISIA	18
5.1 ALTERNATIBA TEKNIKOAK	18
5.1.1 BERO TRUKAGAILU MOTA.....	18
5.1.2 HODI MOTA.....	22
5.1.3 GAINAZAL HEDATUA	22
5.2 SOFTWARE ALTERNATIBAK.....	23
5.3 METODOLOGIA ALTERNATIBAK	24
5.4 ALTERNATIBEN HAUTAKETA	25
6. METODOLOGIA.....	27
6.1 DATUAK	27
6.2 PROZEDURA	27
6.2.1 DIMENTSIONAKETA	27
6.2.2 KARGA GALERAK.....	34
6.3 DISKRETIZAZIOA	38
6.4 OLIO TERMIKOA.....	38
7. EMAITZAK	39
7.1 DATUAK	39
7.2 EMAITZAK.....	39
7.2.1 HEGALEN ANALISIA	42

7.2.2 URKILAK PARALELOAN	44
8. GANTT DIAGRAMA	46
9. AURREKONTUA	48
ONDORIOAK	50
INFORMAZIO ITURRIAK	51
ERANSKINAK: EMAITZAK	52

NOMENKLATURA

ALDAGAIK

A	Azalera. [m^2]
A_B	Hodiaren kanpoko aurpegian dagoen azalera erabilgarria. Hots, hegalek estaltzen ez duten zatia. [m^2]
A_E	Hegalen azalera. [m^2]
C_p	Bero espezifikoa. [$\frac{J}{kg \cdot K}$]
D	Kanpo hodiaren diametroa. [m]
d	Barne hodiaren diametroa. [m]
D_h	Diametro hidraulikoa. [m]
ΔP	Frikzioari dagozkion presio-galerak. [Pa]
$\Delta P'$	Presio galera lokalak. [Pa]
ε	Hegalen eraginkortasuna. [-]
f	Frikzio koefizientea. [-]
h	Konbekzio koefizientea. [$\frac{W}{m^2 \cdot K}$]
η	Konbekzio koefizientearentzako zuzenketa faktorea. [-]
j_h	Bero transferentzia faktorea. [-]
$k(T)$	Eroankortasun termikoa T temperaturara. [$\frac{W}{m \cdot K}$]
L	Luzera. [m]
$LMTD$	Bataz besteko temperatura diferentzia logaritmikoa. [$^{\circ}C$]
\dot{m}	Emari masikoa. [$\frac{kg}{s}$]
$\mu(T)$	Biskositatea T temperaturarako. [$\frac{kg}{m \cdot s}$]
N	Kopurua. [-]
$\nu(T)$	Biskositate zinematikoa T temperaturarako. [$\frac{m^2}{s}$]

Pr	Prandtl-en zenbakia. [-]
\dot{Q}_{truk}	Trukatutako beroa. [W]
Re	Reynolds-en zenbakia. [-]
R_{zikin}	Zikinkeriak eragindako erresistentzia termikoa. $\left[\frac{W}{m^2 \cdot K}\right]$
$\rho(T)$	Dentsitatea T temperaturarako. $\left[\frac{kg}{m^3}\right]$
St	Stanton-en zenbakia. [-]
T	Tenperatura. [$^{\circ}C$]
U	Bero transferentzi koefiziente orokorra. $\left[\frac{W}{m^2 \cdot K}\right]$
V	Abiadura. $\left[\frac{m}{s}\right]$
w	Lodiera. [m]
y	Re zenbakiaren araberako berretzailea. [-]

AZPIINDIZEAK

0	Hasierako balioa.
1	Olio termikoari dagokiona.
2	Urario dagokiona.
e	Sarrera.
ef	Efektiboa.
ext	Kanpo.
int	Barne.
$hegal$	Hegalari dagokiona.
$hodi$	Hodiari dagokiona.
i	Barne kanalari dagokiona.
m	Bataz bestekoa.
o	Kanpo kanalari dagokiona.
oi	Kanpo kanaleko balio zuzendua.

<i>s</i>	Irteera.
<i>tot</i>	Totala.
<i>urk</i>	Urkila.
<i>w</i>	Pareta

LABURPENA

Laburpena: Gailu elektronikoen hozketa sistema baten parte den jariakin termiko baten hozketarako bero trukagailu bat diseinatu nahi da. Diseinu prozesuan zehar zehaztu beharko diren hainbat gauzen artean korronteen antolamendua edota bero trukagailuaren luzera daude. Beharrezkoak diren kalkulu guztiak kasu hauetan maiz erabiltzen den EES software-aren laguntzarekin burutuko dira.

Diseinua burutu eta gero beste kasu batzuk jorratuko dira hartutako erabakiak egokiak diren edo aldaketaren bat egin beharko litzatekeen jakiteko asmoz, betiere prezioaren, zailtasun teknikoaren eta jarduera egokiaren arteko oreka ziurtatuz.

Abstract: The design of a heat exchanger is needed in order to cool a thermal fluid flow that is part of a electrical device cooling system. Some of the things to determinate will be the flow arrangement or the length of the heat exchanger depending on the amount of power that will be exchanged. These calculus will be done using the EES software, which is commonly used in these sort of problems.

After the design some extra calculations will be done with other values in order to analyze if the chosen option is the optimal one or there are some modifications that would improve the heat exchanger, always looking for the perfect balance between prize, technical complexity and performance.

Resumen: Se quiere diseñar un intercambiador de calor para el enfriamiento de un fluido térmico que forma parte de un sistema de enfriamiento de dispositivos electrónicos. Algunas de las cosas a determinar en el diseño son la disposición de las corrientes o la longitud del intercambiador. Para realizar los cálculos necesarios se usará el software EES, muy utilizado en este tipo de casos.

Una vez diseñado el intercambiador se procederá a analizar otros caso con el fin de determinar si las decisiones tomadas han sido las adecuadas o si habría que hacer alguna modificación, siempre buscando el equilibrio entre precio, complejidad técnica y desempeño del equipo.

IRUDIEN AURKIBIDEA

- IRUDIA 1 ORDENAGAILU BATEN HOZTE SISTEMARAKO BERO TRUKAGAILUA. ITURRIA: [3]
- IRUDIA 2 ENERGIA SORKUNTZA PLANTA BATEKO BERO TRUKAGAILUA. ITURRIA: [9]
- IRUDIA 5 HODI BIKOITZEKO BERO TRUKAGAILUAREN OHIKO ANTOLAMENDUA. ITURRIA: [7]
- IRUDIA 6 HODI BIKOITZEKO BERO TRUKAGAILUA. ITURRIA: [7]
- IRUDIA 7 EKIKORRONTEAN ZEIN KONTRAKORRONTEAN EMATEN DEN TENEPRATURA PROFILA. ITURRIA: [11]
- IRUDIA 8 FLUXU NAHASTUA (ESKUINA) ETA FLUXU EZ-NAHASTUA (EZKERRA) BERO TRUKAGAILU KONPAKTUETAN. ITURRIA: GOOGLE
- IRUDIA 9 XAFALDUN BERO TRUKAGAILUA. ITURRIA: [2]
- IRUDIA 10 BEROTUTAKO MATERIALA PARTIZIO GAINAZALA DENEKO KASUA. ITURRIA: []
- IRUDIA 11 BERO GURPILA. ITURRIA: GOOGLE
- IRUDIA 12 HEGAL LONGITUDINALAK. ITURRIA: [10]
- IRUDIA 13 HEGAL PERPENDIKULARRAK. ITURRIA: [12]
- IRUDIA 14 ETAPA BAKARREKO ETA ETAPA ANITZEKO ANTOLAMENDUA. ITURRIA: [5]
- IRUDIA 15 BI ZIRKUITU PARALELO DITUEN BERO TRUKAGAILUA, ZIRKUITU BAKOITZEAN BI JOAN-ETORRI EDO URKILA DAUDELARIK. ITURRIA: [16]
- IRUDIA 16 LAU URKILADUN HODI BIKOITZEKO BERO TRUKAGAILUA. ITURRIA: [6]

TAULEN AURKIBIDEA

- TAULA 1 BERO TRUKAGAILUA 1, 3 ETA 4 ZATITAN BANATZEAN LORTUTAKO LUZERA INDEPENDENTEAK ETA LUZERA TOTALA.
- TAULA 2 BARNE ETA KANPO KANALETAN EMATEN DIREN KARGA GALERAK.
- TAULA 3 BESTE HAINBAT DATU ESANGURATSU
- TAULA 4 HEGALIK GABEKO KASUAN LORTUTAKO EMAITZA ESANGURATSUENAK.
- TAULA 5 HEGALEN ERRENDIMENDUA ETA ERAGINKORTASUNA
- TAULA 6 HEGALEN ZUZENKETA SARTU BAINO LEHEN ETA OSTEAN KANPO KOBEKZIO KOEFIZIENTEA.
- TAULA 7 BI ZIRKUITUTAN BANATZERAKOAN LORTUTAKO EMAITZAK.
- TAULA 8 HIRU ZIRKUITUTAN BANATZERAKOAN LORTUTAKO EMAITZAK.
- TAULA 9 DIMENTSIONAKETA PROIEKTUAREN BARNE-ORDUEN KALKULUA.
- TAULA 10 DIMENTSIONAKETA PROIEKTUAREN AMORTIZAZIOEN KALKULUA.
- TAULA 11 DIMENTSIONAKETA PROIEKTUAREN GASTUEN KALKULUA.
- TAULA 12 DIMENTSIONAKETA PROIEKTUAREN AURREKONTUAREN KALKULUA.

1. SARRERA

Gailu elektronikoen kontrol termikoak hauen tenperatura fabrikatzaileak zehaztutakoaren azpitik mantentzea du helburu. Frogatuta dago osagai baten tenperatura fabrikatzaileak emandakoa baino 10°C gehiago bada zenbait sistemen fidagarritasuna %50 jeitsi daitekeela. Hortaz, funtsezko garrantzia dauka hauen hozteak. Dokumentu honetan gailu hauek hozten dituen jariakina hoztea helburu duen bero trukagailu baten diseinu prozesu osoa adierazten da. Lehen eskaera egiten denetik, bitartean beharrezko erabakiak hartuz eta azken emaitzen lorpena eta hauen analisisa egiten denera arte.

Aipatutako bero trukagailua gailu elektronikoen hozketa sistematik datorren jariakin termiko baten hozketarako egin nahi da. Bero trukagailu honen alde baten jariakin termikoa joango da, bestaldetik urak jarioko duelarik. Jariakin termikoa 70°C -tan sartu eta 25°C -tan irtetzea eta ura 15°C -tik 50°C -tara berotzea nahi da.

Hoztu nahi den jariakin termiko honek $0,38\text{ kg/s}$ -ko emari konstantea izango du, ur korrontearen beharrezko emaria kalkulatu beharko delarik. Bero trukagailuak beharrezko bero trukaketatik jeitsi ez dadin, eskatu da kalkuluak egiterako orduan $0,0002\text{ m}^2\cdot\text{K/W}$ -ko zikinkeriatik erresistentzia termikoa suposatzeke bai jariakin termikoaren zein uraren aldean.

Aurreko datu horiek guztiak kontutan izanik, bero trukagailu mota zehaztea eta honen dimentsionaketa egitea eskatzen da, ekonomikoki zein teknikoki kasu optimoena aukeratuz. Honekin batera proiektua aurrera eramateko Gantt diagrama eta aurrekontua eskatzen dira.

2. TESTUINGURUA

2.1 ERREFRIGERAZIO SISTEMAK

Badaude gaur egun hainbat ekipo mota non haien eginkizunetan jarduten duten bitartean beroa ekoizten duten, hau haien heburua izan gabe. Edozein sistema mekaniko marruskaduraren eraginez sortutako beroak edota sistema elektronikoko batek jardutean sortutakoak hauen fidagarritasunean eragin negatiboa daukate eta errefrigerazio sistema baten beharra dago.

Errefrigerazio sistemetan, hoztu nahi den elementua jariakin hotzago batekin kontaktuan jarri eta gero jariakin hau kanporatu egiten da, elementuari beroa kenduz, honen tenperatura jeitsiz. Zenbat eta hotzago orduan eta handiagoa izango da errefrigerazioa. Jariakin hozgarria gas zein likido fasean egon daiteke. Gaur egungo errefrigerazio sistema gehienek inguruko airea erabiltzen dute hozgarri bezala. Hala ere, beste aplikazio batzuetan hozgarri bezala helburu horretarako diseinatutako likidoak erabiltzen dira. Likido hauek ziklo itxi baten barnean daude eta hoztu nahi den ekipoari beroa kentzeaz gain, gero berriz hozteko barnean daramaten beroa kanporatu behar dute, haiek baino hotzago dagoen jariakin batekin beroa trukatzuz, bero trukagailu batean, hain zuzen.

2.2 BERO TRUKAGAILUAK

Bero trukagailu bat, orokorrean, bi jariakin edo gehiagoren arteko bero trukaketa bat behar den edozein aplikaziotan erabil daiteke. Aplikazio maila horren zabala izanik, ez da harritzekoa gaur egun edozein eskalatarara erabiltzen diren ekipoak izatea. Izan ere, "bi jariakin edo gehiagoren arteko bero trukaketak" hainbat kasu ezberdin har ditzake barnean. Esaterako, jariakin bezala orokorrean edozein gas zein likido har daiteke, eta bero trukaketaz hitz egiterakoan hainbat helburu egon daitezke: jariakin baten berotzea, jariakin baten hoztea, likido baten irakitzea edota gas baten kondentsazioa, besteak beste. Hori dela eta, bero trukagailu bat 1000MW-eko energia sorkuntza planta baten zein ordenagailu baten hozte sisteman aurki daiteke. *Irudia 1 eta 2*

Gaur egun bero trukaketa handienak eman daitezkeen aplikazioak energia sorkuntza plantetan izaten dira. Izan ere, energiaren iturria edozein dela ere, energia sortzeko ziklo termodinamiko bat behar den edozein kasurako bero trukagailu baten beharra egongo da. Hau da, bero sarrera ikatzak, erregai fosilak, eguzki energiak zein erreazio

nuklearrak sortzen badu ere, mota honetako ekipo bat edo gehiago instalatuta egon beharko dira.



Irudia 2 Energia sorkuntza planta bateko bero trukagailuak.



Irudia 1 Ordenagailu baten hozte sistemarako bero trukagailua.

2.3 BERO TRUKAGAILUAK ESKALA ERTAIN-TXIKIAN

Potentzia aldetik erabilera handiena energia sorkuntzan dagoen arren, eskala ertain eta txikian bero trukagailu kantitate askoz gehiago aurki daitezke gaur egun. Izan ere, kilmalizazio edo errefrigerazio sistemetan, aire girotuan eta prozesamendu kimikoan beharrezkoak diren osagaiak dira. Hori dela eta, edozein igerileku, hozkailu, eraikin eta motore ibilgailutan aurki ditzakegu.

Industria prozesuetan ere maiz erabiltzen dira. Janari ekoizpen industrian, esaterako, olioak, esnekiak, kontserbak, konpotak eta saltzak produzitzeko prozesuan barneratuta daude. Bodega askotan ere, botilak hotz mantendu daitezen errefrigerazio sistema ugari erabiltzen dira.

2.4 HODI BIKOITZEKO BERO TRUKAGAILUAREN ERABILERA

Bero trukagailu mota honek gaur egun duen erabileraren zergaiti nagusia diseinuaren sinpletasuna da. Lehen bero trukagailuen beharra zegoenean diseina zitekeen modelu sinpleena. Hori dela eta, gaur egun eskala txikian asko erabiltzen den aukera da. Trukaketan parte hartzen duten jariakinean fase aldaketarik gertatzen ez denean aukera ohikoena izaten da. Aplikazio nagusien artean hondakin uren tratamendua, janarien prozesaketa, produktu farmazeutikoak edota industria petrokimiko daude.

Aurrerago ikusiko den bezala, bero trukagailu hauek eskala txikian bakarrik erabiltzearen beste zergaiti bat bero trukaketarekiko duen luzera erlazioa da. Hau da, bero trukaketa txikietarako egokia izan daiteke baina beroa gero eta gehiago handituz luzera oso handiak behar izaten dira.



Irudia 3 Hodi bikoitzeko bero trukagailuaren ohiko antolamendua.

3. HELBURUAK ETA IRISPENA

3.1 HELBURUAK

- Jariakin termikoa eskatzen den bezain beste hoztu ahal izatea.
- Bero trukagailuaren dimentsionaketa ahalik eta optimoena izatea.
- Hobekuntzen azterketa sakona egitea.

3.2 IRISPENA

Gradu Amaierako Lan honek irispen argi bat dauka: bero trukagailuaren dimentsionamendua eta presio galeren kalkulua egitea eta behin hau eginda honen aurrekontu bat burutzea. Hau da, dimentsionaketa problemaren emaitzak lortzea eredu matematikoen bidez.

Hori lortzeko, beharrezkoa den software-a erabili behar izango da, kalkulu matematiko guztiak burutzeko gai dena bai kasu honetarako bai beste kasu antzerakoetan. Honetarako *Engineering Equation Solver (EES)* programa erabiliko da.

Diseinu honen limitazio nagusia eredu matematikotik lortutako emaitzak kasu erreal batekin konparatzea ezinezkoa dela da. Izan ere, ez dago bero trukagailu modelo batekin esperimentera emaitzak lortzeko aukerarik. Hala ere, EES programa erabiliz nahi den bero trukagailuaren eredu matematikoa burutuz, bertan emandako gertakari fisiko guztiak kuantifikatzea posible izango da, nahi izanez gero. Gainera, behin eredu matematikorako beharrezko ekuazio guztiak planteatuta, beste kasu edo problema bat jorratu nahi izango balitz posible izango litzateke.

Behin hasierako kasu partikularreko beharrezko emaitzak lortu direla, hobekuntzak bilatzeko asmoz hainbat aldaketa egin daitezke, hauek azkeneko emaitzan duten aldaketa aztertuz. Azterketa hauek egin litezke bero trukagailua dimentsionatu eta gero, betiere aztertzen ari garen faktore hori alda badaiteke:

- Hegalak: hegalek bero transmisio azalera nabarmenki handitzen du eta, hortaz, beharrezko dimentsioak asko txikiagotzen ditu. Analisi interesgarri bat hegalek guztiz kentzea izango litzateke, bi hodi zentrukideren azterketa eginez. Kasu honetan ikus liteke ea hegalek guztiz beharrezkoak diren ala ez, zeren eta ez badu luzeran eragin handirik, ez litzateke kasu honetarako errentagarria izango, karga galerak eragiten baitituzte.

- Hodi bakarra edo sorta: analisi hau aurreko atalarekin erlazionatuta dago. Izan ere, emari konkretu bat hodi luze batetik pasarazi ordez emaria zatitu eta hodi ezberdinetatik pasaraziko balira, hodi bakoitzaren luzera txikiagoa izango litzateke. Helburuaren arabera honek eragin garrantzitsua izan lezake: alderdi ekonomikotik, izan liteke separazio honek beharrezko materialean aurrezpena ekartzea; konpaktasunaren aldetik ordea, izan liteke hormaren batetik garraiatu nahi bada separazio honek zailtasunak sortzea.

4. PROIEKTUAREN ABANTAILAK

Gailu elektronikoak haien erabileran zehar asko berotzen diren ekipoa dira. Izan ere, Joule efektuak eragindako bero galera guztiak batuz gailuak galtzen duen bero honek hau berotzea eragiten du.

Gailu elektronikoen tenperatura igotzean, hauen jardutea jeitsi egiten da. Hori dela eta, garrantzitsua da sistema hauek errefrigeratzeko moduren bat egotea. Errefrigerazio sistemaren eskala gailu elektronikoaren eskalak definituko du. Horrela, ordenagailu batek sistema txikiak erabiltzen dituzte, baina hainbat zerbitzari batera jarduten ari diren planta baten errefrigerazio sistema nabarmena beharko da.

Proiektu honi esker hozte sistemaren funtsezko parte bat diseinatzea posible izango da. Hoztu nahi diren gailuak tenperatura egokian mantenduz, haien jarduera jeitsi ez dadin.

Bero trukagailuaren diseinuari dagokionez, proiektu honen helburu den bero trukagailuaren diseinua egiteaz gain, hurrengo kasuetarako lagungarria izan daiteke ikerketa egitea. Izan ere, alternatiben analisia egin eta gero hartutako erabakiak oinarri bezala lagunduko duten arren, emaitzekin batera beste hainbat aukera aztertuko dira, kasu honetarako bero trukagailua ahalik eta optimizatuen egon dadin. Hori dela eta, amaierako erabakiak ere etorkizunerako oinarri bezala lagungarriak izango dira.

Etorkizunera begira ere, egundako programazioa proiektu honetarako erabiltzeaz gain, beste diseinu prozesu edota ikerketak egin ahal izango dira. EES programan ekuazio guztiak jada daudenez, beste kasu antzerako bat jorra liteke horren beharra egongo balitz.

5. ALTERNATIBEN ANALISIA

Hasiera baten egindako eskaeran emandako baldintzekin hainbat gauza ezarrita geratzen dira. Hala ere, proiektua aurrera eramateko hainbat erabaki hartu behar dira oraindik. Erabaki hauek hartzerako orduan bi irizpide edukiko dira kontutan.

- Irizpide teknikoa: izan daiteke aukera bat kasu zehatz honetarako oso egokia izatea. Hala ere, teknikoki oso zaila bada, ezin izango da aurrera eraman.
- Irizpide ekonomikoa: normalean gehien baldintzatzen duen faktorea da hau. Izan ere, ingeniartzako proiektu baten hainbat teknologia aurreratu aurki daitezke, aztertzen ari den kasurako oso ondo moldatzen direnak. Baina teknologia hauek orokorrean nahiko garestiak dira, eta erabaki ohikoena hauek baztertzea izaten da.

Hurrengo ataletan kalkuluekin hasi baino lehen hartzea nahitaezkoa den hainbat erabaki planteatzen dira. Behin aukera guztiak definituta, aurreko irizpideek gidaturik kasu bakoitzerako erabakia hartuko da.

5.1 ALTERNATIBA TEKNIKOAK


5.1.1 BERO TRUKAGAILU MOTA

Bero trukagailu motak sailkatzeko hainbat irizpide daude: bero transmisio prozesuaren arabera, korrante kantitateen arabera, konpaktasunaren arabera, eraikuntza ezaugarrien arabera edota fluxuen antolamenduaren arabera, besteak beste.

Aurretik emandako irizpide zerrendan oinarrituz, aukera bat baino gehiago egon daiteke zenbait kasutan.

5.1.1.1 HODI BIKOITZEKO BERO TRUKAGAILUAK

Mota hau bi hodi zentrukidek osotzen dute, hodi bat bestearen barnetik doalarik. Bero trukagailu mota honetan, orokorrean jariakin beroa barne hoditik joaten da beroa galduz, kanpoko jariakin hotzak beroa irabazten duelarik. Irudian ikus daitezkeen bezala, hodi bikoitzeko bero trukagailuek normalean urkila itxuradu hainbat sigi-saga dauzkate, konpaktasunaren aldetik optimoagoa delako. Urkila hauek bata bestearekin seriean zein paraleloan instala daitezke.




Irudia 4 Hodi bikoitzeko bero trukagailua.

Bero trukagailu honen erabilera arrazoi nagusia teknikoki oso sinplea dela da, beste mota batzuein konparatuz. Horrez gain, ekonomikoki beste aukera batzuk baino hobeto irtetzen da trukaturako beroa txikia izatea nahi bada. Aipatu bezala, honen desabantaila nagusia bero trukaketa eman dadin luzera nahiko handiak behar direla da. Hala ere, azaldutako urkila itxurako eran antolatuz hodi luzera nahiko handiak era nahiko konpaktu baten jar daitezke.

Hodi bikoitzeko bero trukagailuetan fluxuak bi modutan joan daitezke: ekikorrontean (fluxu paraleloa ere deritzona) edo kontrakorrontean. Diferentzia nagusia irteera tenperaturetan antzematen da. Ekikorrontean dagoen bero trukagailu baten, jariakin hotzaren irteera tenperatura jariakin beroaren irteera tenperaturak baldintzatzen du, hau ezin izango baitu gainditu. Kontrakorrontean, ordea, jariakin hotzaren irteera tenperatura korronte beroaren sarrera tenperaturak baldintzatuko du, hau handiagoa delarik.


Orokorrean, likido-likido bero transferentzia kasu baten fluxuak paraleloan jarri ohi dira. Kontrakorrontean, aldiz, bietako korronte baten fase aldaketaren bat gertatzen denean. Irudian ikus daitezke bero trukagailuan izango dugun tenperatura profila.



Irudia 5 Ekikorrontean(ezkerra) zein kontrakorrontean(eskuina) ematen den tenperatura profila.

5.1.1.2 BERO TRUKAGAILU KONPAKTUAK

Mota honetako bero trukagailuak bolumen unitateko bero transferentzia azalera ahalik eta handiena lortzeko diseinatuta daude. Mota hauetarako, normalean korronteak bata bestearikiko ortogonalki mugitzen dira, fluxu antolamendu honi fluxu ebakia deritzo. Fluxu ebakiaren barnean alde batetik fluxu nahastua daukagu. Kasu honetan, bietako fluxu bat libreki jario du beste fluxuarekiko ortogonalki inongo murrizketarik gabe. Fluxu ebakiaren barnean fluxu nahastuak daude beste alde batetik. Kasu honetan, bi fluxuak ortogonalki dabilta bata bestearikiko, baina bietako bati xafla batzuk jartzen zaizko gida bezala. Aipatutako bi mota hauek hurrengo irudian antzeman daitezke.




Irudia 6 Fluxu nahastua (eskuina) eta fluxu ez-nahastua (ezkerra) bero trukagailu konpaktueta.

5.1.1.3 XAFLADUN BERO TRUKAGAILUA

Mota honetan jariakinen arteko banatze gainazala horma lauak dira. Hainbat xafla lau elkarrengandik hurbil jartzen dira, eta korronteak aldizka bat edo beste pasarazten dira. Irudian ikus daitezkeen antolamenduan, xaflak gehitu edota kendu egin daitezke, ez baitute inongo soldadurarik. Hori dela eta, posible da bero transmisio azalera aldatzea, nahi izanez gero. Bero trukagailu mota hauek oso interesgarriak dira likido-likido bero trukaketarako, batez ere presio berean ari badira.

Jada aipatu bezala, bero trukagailuak malgutasun handia dauka transferentzia azalerari dagokionez, eta honek abantaila suposatzen du. Gainera, xaflak modu errazean atera daitezke mantenu lanak egin nahi badira. Hala ere, mantenu lanak trukagailu hauetan

ez dira beste kasu batzuetan bezan maiz egin behar, kasu honetan zikintasuna ez baita horrenbeste pilatzen.




Irudia 7 Xafaldun bero trukagailua.


Desabantaila nagusietako bat xafletan gerta daitezkeen zuloak dira. Izan ere, honelako edozer gertatuz gero zaila izaten da zuloa detektatzea. Baina desabantaila nagusia prezioa da. Inbertsio nahiko handia eskatzen du nahiko teknologia modernoa baita. Hori dela eta, mota hau industria prozesuetan gero eta erabiliagoa da, amortizatzeko aukera izanda irtenbide egokia delako.

5.1.1.4 BERO BERRESKURATZAILEAK

Bero berreskuragailu batean korrante beroak material bati transmititzen dio beroa eta behin materiala berotu dela orduan jariakin hotz bat pasarazten da bertatik, hari beroa emanez. Aipatutako materiala bi korronteen banatze gainazala izan daiteke, baita material porotsu bat ere. Material porotsu honen kasuan jariakinak honen baretik pasarazten dira eta materiala korrante batetik bestera pasatzen da. Orokorrean kasu hau gurrpil batekin egiten da, bero gurrpila ere deritzona, non gurrpil erdia fluxu hotzarekin eta beste erdia fluxu beroarekin kontaktuan dagoen, irudian bezala.



Irudia 9 Bero gurpila.



Irudia 8 Berotutako materiala partizio gainazala deneko kasua.

5.1.2 HODI MOTA

Hodi mota bero trukaketa abiadura baldintzatzen duen faktorea da. Izan ere, garrantzitsua da eroankortasun termiko ona duen hodi bat lortzea, eroankortasuna handituz beroak erraztasun handiagoarekin zeharkatuko baitu hodiaren pareta. Hala ere, korrosioarekiko edota presioekiko materialak erakusten duen erresistentzia ere oso garrantzitsua da. Honez gain, kontutan izan behar da faktore ekonomikoa, ezaugarri onak erakusten dituzten material asko prezio aldetik oso garestiak dira-eta.

Hodi material ezberdinak ezagutzeko, LOINTEK S.L. enpresarekin kontaktuan jartzea posible izan da hegaldun hodian inguruko informazioa eskatuz. Emandako informaziotik abiatuz, hurrengo bi materialak erabiltzen dira gehienbat:

- Karbono altzairua
- Altzairu aleazio ferritiko eta austenitikoak


Bi altzairuek ezaugarri onak erakusten dituzte bai korrosioarekiko bai presio altuekiko. Hala ere, eroankortasunaren eta prezioaren azterketa bat egin behar da amaieran erabiliko den hodi materiala zehaztu ahal izateko

5.1.3 GAINAZAL HEDATUA


Hegalak bero trukaketa gainazala handitzeko instalatzen dira, trukaturako beroa handiagoa izateko asmoz. Bero trukagailuetan gerta daiteke eraginkortasuna ez izatea nahi bezain handia. Aplikazio batzutan izan daiteke gutxieneko eraginkortasun bat egotea edo masa eta bolumena mugatuta egotea. Gainera, gas edo likido batzuentzat gerta daiteke konbekzio koefizientea ez izatea oso handia. Honek guztiak azaleraren

handitze baten beharra dakar. Hau lortzeko bero trukagailuetako hodietan hegala instalatzen dira, hodiaren alde baten zein bietan jar daitezkeelarik. Hegalak gehitzeak transferentzia azalera 5-12 aldiz handitu dezake luzera unitateko, diseinuaren arabera.

Xafladun bero trukagailuetan hegalek hainbat forma ezberdin izan ditzakete eta hauek sailkatzea konplikatu izan liteke. Hala ere, bero trukagailu tubularretan, orokorrean bi hegal mota bereiz daitezke, hegal longitudinalak eta hegal perpendikularrak.. Hegal bakoitzaren erabilerarako arrazoi nagusi bat dago, zeren eta karga galerak kontutan izanik, hegalak kanal horretako fluxuarekiko paraleloak izan beharko dira. Hori dela eta, hegalak kanpoaldean jarrita egongo liratekeen kasu baterako, kanpoaldeko fluxua barnealdekoarekiko perpendikularra bada, hegal perpendikularrak erabili beharko dira. Kanpoko fluxua barnekoarekiko paraleloa bada, ordea, hegal longitudinalak erabili beharko dira. Fluxua paraleloa eta perpendikularra ez den kasu baterako, hegal bereziak ere diseinatzen dira, helikoidalak, adibidez.



Irudia 11 Hegal perpendikularrak.



Irudia 10 Hegal longitudinalak.

5.2 SOFTWARE ALTERNATIBAK

Bero trukagailuaren dimentsionaketarako beharrezko kalkuluak egiteko software baten beharra dago. Software honetan beharrezko ekuazio eta aldagai guztiak definituz, posible izango da hainbat kasu ezberdin jorratzea sarrera aldagaietan eta ekuazioetan aldaketa txikiak eginez. Hori dela eta, ekuazio hauek ebazteko gai den programa bat beharrezkoa izango da. Aurrekoa kontutan izanik eta ikaslearen ezagutzak baldintzaturik bi programa posible planteatzen dira:

- Engineering Equation Solver (EES): programa hau, izenak dioen bezala, ekuazioak ebazteko duen trebetasunagatik nabarmentzen da. EES programak duen beste abantaila handi bat hainbat jariakinen propietateak bere barnean

dituela da. Orokorrean termodinamikarekin zerikusiak dituzten kasuak aztertzeke programa erabilieta da.


- Matlab: esan daiteke matlab kalkulu programen artean konpletuenetarikoa dela. Kasu konkretu honetan, programa honek EES-rekiko duen abantailetak bat prozesu iteratiboak definitzeko gaitasuna da. Izan ere, diseinua burutzeko beharrezkoa izango da prozesu iteratiboren bat erabiltzea, eta Matlab nahiko erraminta ona da horretarako.

5.3 METODOLOGIA ALTERNATIBAK

Bero trukagailu baten beharrezko kalkuluak egiterako orduan, helburua hau dimentsionatzea edo bertan ematen den bero trukaketa edota karga galeren kalkulua burutzea den kontutan izanik, hainbat prozedura jarrai daitezke nahi diren aldagaiak kalkulatzeko. Erabilgarriak izan daitezkeen bi metodo nagusien azalpen orokor bat emango da, abantaila nagusiak azalduz:

- ϵ -NTU metodoa: metodo honekin, bero trukaketa jakiteko lehenik bi zenbaki adimentsionalen balioa zehaztu beharko da. Metodo hau oso erabilia izan ohi da bero trukagailuaren irteera tenperaturak ezezagunak direnean. Izan ere, bero transmisioaren ekuazio orokorrak erabilia irteera tenperaturak kalkulatzeko iterazio prozesu baten beharra dago, metodo honekin ordea, ez.
- LMTD metodoa: Metodo hau tenperaturaren batz besteko logaritmikoaren kalkuluak oinarritzen da. Hori dela eta, metodo hau egokiagoa izan ohi da jariakinen sarrera zein irteera tenperaturak ezagunak badira. Hau honela ez bada, iterazio bidez irteera tenperaturak zein trukaturako beroaren kalkulua lor daiteke. Baina egoera horietan beste metodo batzuen erabilera egokiagoa izan liteke.

Metodo hau etapa bakarreko bero trukagailuetan baino ezin daiteke erabili. Hurrengo irudian etapa bakarreko eta etapa anitzeko bero trukagailuen arteko diferentzia antzeman daiteke.



Irudia 12 Etapa bakarreko eta etapa anitzeko antolamendua.

Bi kalkulu metodoek badituzte abantailak zein desabantailak. Hori dela eta, aztertu behar da gure kasua zein den eta horretan oinarriturik gure kalkuluak egiteko e proposena izango den metodoa erabiliko da.

5.4 ALTERNATIBEN HAUTAKETA

Behin diseinuarekin hasteko hartu behar diren erabakiak planteatuta eta atalaren hasieran definitutako irizpideak jarraituz, hurrengo hautaketak egin dira diseinuari hasiera eman ahal izateko:

- Alternatiba teknikoa: hegal longitudinaldun hodi bikoitzeko bero trukagailu bat egitea erabaki da, fluxuak kontrakorrantean joango direlarik. Honez gain, karbono altzairuzko hodiak erabiliko dira.

Hodi bikoitzaren aukeraketaren zergaiti nagusia irizpide ekonomikoak ezarri du. Hodi bikoitzeko bero trukagailuen sinpletasunak ekonomikoki oso aukera ona izatera eramaten du aplikazio txiki-txiki kasuetarako. Hori dela eta hodi bikoitza aukeratu da.

Fluxuaren antolamenduari dagokionez, jariakinen irteera temperaturek asko baldintzatu dute erabakia, olioak 25°C-tan eta ura 50°C-tan irteten baitira. Irteera temperatura hori ezinezkoa litzateke ekikorrotean jarriko balira fluxuak, olioaren irteera temperatura urarena txikiagoa ezin baita izan. Horregatik, aukera bakarra kontrakorrantean jartzea da.

Hodi bikoitzaren aukeraketak baldintzaturik, erabaki da bolumen murrizketa egiteko asmoz hegalak jartzea nahiko onuragarria izango dela. Gainera, aurreikusi da uraren bero transmisio koefizientea nahiko txikia izan daitekeela. Arrazoi horiengatik, hodi hegaldunak erabiltzea nahiko bideragarria iruditu da.

Hodi bikoitza erabiliko dela esan denez, hegal longitudinalak erabiltzea baino ez dago.

Azkenik, hodi motari dagokionez, karbono altzairuzko hodiak erabiliko dira. Izan ere, altzairu ferritiko eta austenikoekiko abantaila bikoitza erakusten du. Prezio aldetik askoz ere merkeagoa da eta eroankortasun termiko hobea erakusten du.

- Software alternatiba: bero trukagailuaren dimentsionaketa kalkuluak burutzeko programa egokiena EES dela ondorioztatu da. Erabaki honen arrazoi nagusiak ikaslearen esperientzia eta termodinamikako kasuak aztertzeko erraztasuna izan dira.
- Metodologia alternatiba: LMTD metodoarekin egingo da trukagailuaren dimentsionaketa. Esan bezala, lau tenperaturak ezagunak badira, LMTD metodoak bero trukaketa eta azalaren kalkulua errazten du.

6. METODOLOGIA

Atal honetan bero trukagailuaren parametro ezberdinen kalkulurako jarraitu beharreko prozedura zehazten da. Bertan, hasierako datuetatik abiatuz, trukaturako beroa eta amaierako luzera zehaztuko dira, besteak beste.

6.1 DATUAK

Hasiera batean eskuragarri dauden datuak hurrengoak dira:

- Jariakin termikoaren fluxu masikoa, \dot{m}_1 .
- Jariakin termikoaren sarrera eta irteera tenperaturak, T_{1e} eta T_{1s} .
- Uraren sarrera eta irteera tenperaturak, T_{2e} eta T_{2s} .
- Zikinkeriak eragindako barne eta kanpo erresistentzia termikoa R_{zikin} .
- Hodiaren sekzioaren datu geometrikoak:
 - o Kanpo hodia:
 - Kanpo diametroa, D_{ext} .
 - Barne diametroa, D_{int} .
 - o Barne hodia:
 - Kanpo diametroa, d_{ext} .
 - Barne diametroa, d_{int} .
 - o Aletak:
 - Luzera, L_{hegal} .
 - Zabalera, W_{hegal} .
 - Aleta kantitatea, N_{hegal} .

6.2 PROZEDURA

6.2.1 DIMENTSIONAKETA

Lehenik eta behin bero trukagailuaren osotarako kalkulua egingo da. Hots, bero trukagailu osoaren dimentsioak osorik kalkulatu dira. Behin hau eginda, bero trukagailua bero trukaketa bereko hainbat zatitan diskretizatuko da, zati bakoitzaren luzera independenteki kalkulatu eta gero luzera guztiak batuz.

Sarrera eta irteera tenperaturak ezagunak direnez eta bero trukagailuan zehar tenperatura linealki aldatzen denaren hurbilketa eginez, edozein zatiko sarrera eta irteera tenperaturak lortzeko interpolazioa erabiliko da. Gainera, jariakinen propietateak ezagunak direnez, puntu bakoitzean jariakinen propietateak jakin daitezke. Hau da,

dentsitatea, bero espezifikoa, biskositate dinamiko eta zinematikoak edota eroankortasun termikoa jakin daitezke.

Bero trukagailuaren luzera totalaren kalkulurako, trukaturako beroaren eta uraren emari masikoaren kalkulu arin bat burutuko da, suposatuz bero galerarik ez dagoela eta jariakin batetik bestera doala bero guztia:

$$\dot{Q}_{truk} = \dot{m}_1 \cdot C_{P1} \cdot (T_{1e} - T_{1s}) = \dot{m}_2 \cdot C_{P2} \cdot (T_{2s} - T_{2e}) \quad [1]$$

non

$\dot{Q}_{truk} [W]$ = trukaturako beroa.

$\dot{m}_1 \left[\frac{kg}{s} \right]$ = jariakin termikoaren emari masikoa.

$\dot{m}_2 \left[\frac{kg}{s} \right]$ = uraren emari masikoa.

$C_{P1} \left[\frac{J}{kg \cdot K} \right]$ = olio termikoaren bero espezifikoa.

$C_{P2} \left[\frac{J}{kg \cdot K} \right]$ = uraren bero espezifikoa.

$T_{1e}, T_{1s} [^{\circ}C]$ = olio termikoaren sarrera eta irteera tenperaturak, hurrenez hurren.

$T_{2e}, T_{2s} [^{\circ}C]$ = uraren sarrera eta irteera tenperaturak, hurrenez hurren.

Bero trukaketa hau batz besteko tenperatura diferentzia logaritmikoaren metodoarekin ere egin daiteke, hurrengo ekuazioa planteatuz:

$$\dot{Q}_{truk} = U_i \cdot A_i \cdot LMTD \quad [2]$$

non

$U_i \left[\frac{W}{m^2 K} \right]$ = barne hodiaren barne azalean oinarritutako bero transferentzi koefiziente orokorra.

$A_i [m^2]$ = barne hodiaren barne azalera.

$LMTD [^{\circ}C]$ = batz besteko tenperatura diferentzia logaritmikoa.

Bero trukagailuaren fluxuak kontrakorrantean joatea erabaki denez, batz besteko tenperatura diferentzia logaritmikoaren kalkulua hurrengo espresioaz kalkulatu da:

$$LMTD = \frac{(T_{1e} - T_{2s}) - (T_{1s} - T_{2e})}{\ln \frac{(T_{1e} - T_{2s})}{(T_{1s} - T_{2e})}} \quad [4]$$

[2] ekuazioko U_i bero transferentzi koefiziente orokorraren kalkulurako, jaria kin baten zentru tik beste jaria kinaren zentru ra bero ak daukan erresistentzi termiko guzti ak kontutan eduki behar dira, hurrengo moduan planteatzen delarik:

$$\frac{1}{U_i} = \frac{1}{h_i} + R_{zikin} + \frac{d_{int}}{2 \cdot k_2(T_{2m})} \cdot \ln \frac{d_{ext}}{d_{int}} + R_{zikin} + \frac{d_{int}}{h_o \cdot d_{ext}} \quad [5]$$

non

$h_i \left[\frac{W}{m^2K} \right]$ = uraren konbekzio koefizientea.

$k_2(T_{2m}) \left[\frac{W}{m \cdot K} \right]$ = uraren eroankortasun termikoa T_{2m} temperaturara.

$T_{2m} [^{\circ}C]$ = uraren sarrera eta irteeraren arteko bat az besteko aritmetikoa.

$h_o \left[\frac{W}{m^2K} \right]$ = olio termikoaren konbekzio koefizientea $[W/m^2 \cdot K]$.

[5] ekuazioan U_i -aren kalkulurako beharrezkoa da h_i eta h_o konbekzio koefizienteen balioak kalkulatzea. h_i -ren kalkulurako lehenik eta behin beharrezkoa da Reynolds zenbaki adimentsionalaren kalkulua egitea, hurrengo espresioak erabiliz.

$$Re_1 = \frac{V_1 \cdot D_{h1}}{\nu_1(T_{1m})} \quad [6]$$

$$Re_2 = \frac{V_2 \cdot d_{int}}{\nu_2(T_{2m})} \quad [7]$$

non

$Re_1 [-]$ = olio termikoari dagokion Reynolds zenbakia.

$V_1 \left[\frac{m}{s} \right]$ = olio termikoaren abiadura.

$D_{h1} [m]$ = kanpo kanalaria dagokion diametro hidraulikoa. Izan ere, kanpo kanalak oso sekzio irregularra dauka eta ezin da diametroaz adierazi barruko kanalaren kasuan bezala. Honen kalkulurako diametro hidraulikoa erabiltzen da, hots, lau aldiz erradio hidraulikoa.

$\nu_1(T_{1m}) \left[\frac{\text{m}^2}{\text{s}} \right]$ = olioaren biskositate zinematikoa T_{1m} tenperaturarako.

T_{1m} = olioaren sarrera eta irteeraren arteko bataz besteko aritmetikoa [°C].

$Re_2 [-]$ = urari dagokion Reynolds zenbakia.

$V_2 \left[\frac{\text{m}}{\text{s}} \right]$ = uraren abiadura.

$\nu_2(T_{2m}) \left[\frac{\text{m}^2}{\text{s}} \right]$ = uraren biskositatea zinematikoa T_{2m} tenperaturarako.

Konbekzio koefizientearen kalkulurako hurrengo pausua bero transferentzia faktorea kalkulatzeko da, Reynolds-en zenbakiaren arabera ekuazio bat edo beste erabili behar delarik. Barne kanaletik doan urarentzat hurrengo hiru ekuazioak dauzkagu:

$$j_{h2} = \frac{1,86}{Re_2^{\frac{2}{3}} \cdot \left(\frac{L}{d_{int}} \right)^{\frac{1}{3}}} \quad Re_2 < 2100 \quad [8]$$

$$j_{h2} = \frac{0,116 \cdot \left(Re_2^{\frac{2}{3}} - 125 \right) \cdot \left(1 + \left(\frac{d_{int}}{L} \right)^{\frac{2}{3}} \right)}{Re_2} \quad 2100 < Re_2 < 10000 \quad [9]$$

$$j_{h2} = \frac{0,027}{Re_2^{0,2}} \quad Re_2 > 10000 \quad [10]$$

non

$j_{h2} [-]$ = barne hodiko bero transferentzia faktorea.

$L [m]$ = hodi luzera.

Ikus daitekeenez, Re_2 balio batzuetarako ezin daiteke bero transferentzia faktorea berehala kalkulatu. Beraz, gerta daiteke amaierako luzera hasiera baten suposatzea edo bestela amaierara arte bero transferentzia faktorea luzeraren menpe uztea.

Kalkuluekin jarraitzeko beharrezkoa da beste zenbaki adimentsional baten balioa, Prandtl-en zenbakia, hain zuzen ere.

$$Pr_2 = \frac{C_{p2}(T_{2m}) \cdot \mu_2(T_{2m})}{k_2(T_{2m})} \quad [11]$$

non

$Pr_2[-]$ = urari dagokion Prandtl-en zenbakia.

$\mu_2(T_{2m})$ = uraren biskositatea T_{2m} temperaturarako.

Uraren konbekzio koefizientearen kalkularen jarraituz, Stanton zenbaki adimentsionalaren kalkulurako beharrezko guztia badaukagu:

$$j_{h2} = St_2 \cdot Pr_2^{\frac{2}{3}} \cdot \left(\frac{\mu_{2w}(T_w)}{\mu_2(T_{2m})} \right)^{0,14} \quad [12]$$

non

$St_2[-]$ = urari dagokion Stanton-en zenbakia.

$\mu_{2w}(T_w) \left[\frac{kg}{m \cdot s} \right]$ = uraren biskositatea T_w temperaturarako.

$T_w[^\circ C]$ = barne hodiaren partaren tenperatura.

Hasierako hurbilketa baterako, suposatuko da uraren batzbesteko biskositateak eta paretako tenperaturarako biskositateak balio bera daukatela, gerora paretako biskositatearen balio erreala lortuko delarik.

Beraz,

$$\left(\frac{\mu_{2w}(T_w)}{\mu_2(T_{2m})} \right)^{0,14} = 1$$

Azkenik, behin Stanton zenbaki adimentsionalaren balio lortu dugula, barne kanaleko konbekzio koefizientearen balioa lor daiteke.

$$St_2 = \frac{h_i}{C_{P2}(T_{2m}) \cdot \rho_2(T_{2m}) \cdot V_2} \quad [13]$$

non

$\rho_2(T_{2m}) \left[\frac{kg}{m^3} \right]$ = uraren dentsitatea T_{2m} temperaturarako.

Kanpo kanaletik doan olioaren kasuan, bero transferentzia faktorearen kalkulurako hurrengo ekuazioak daude:

$$j_{h1} = \frac{0,3161}{Re_1^{0,655}} \quad 100 < Re < 2000 \quad [14]$$

$$j_{h1} = 2,317 \cdot 10^{-5} \cdot Re_1^{0,655} \quad 2000 < Re < 4000 \quad [15]$$

$$j_{h1} = 0,001,6 \cdot Re_1^{0,141} \quad 4000 < Re < 10000 \quad [16]$$

$$j_{h1} = \frac{0,01407}{Re_1^{0,145}} \quad Re > 10000 \quad [17]$$

non

$j_{h1}[-]$ = kanpo hodiko bero transferentzia faktorea.

Uraren kasuan egin den bezala, olio termikoarentzako ere h_o konbekzio koefizientea era berean kalkulatu da, hurrengo espresioen bitartez:

$$Pr_1 = \frac{C_{p1}(T_{1m}) \cdot \mu_1(T_{1m})}{k_1(T_{1m})} \quad [18]$$

non

$Pr_1[-]$ = olioari dagokion Prandtl-en zenbakia.

$\mu_1(T_{1m}) \left[\frac{kg}{m \cdot s} \right]$ = uraren biskositatea T_{1m} temperaturarako.

$k_1(T_{1m}) \left[\frac{W}{m \cdot K} \right]$ = uraren eroankortasun termikoa T_{1m} temperaturara.

$$j_{h1} = St_1 \cdot Pr_1^{\frac{2}{3}} \cdot \left(\frac{\mu_{1w}(T_w)}{\mu_1(T_{1m})} \right)^{0,14} \quad [19]$$

non

$St_1[-]$ = olioari dagokion Stanton-en zenbakia.

$\mu_{1w}(T_w) \left[\frac{kg}{m \cdot s} \right]$ = olio termikoaren biskositatea T_w temperaturarako.

$T_w [^{\circ}C]$ = barne hodiaren paretaren tenperatura.

Kasu honetarako ere, paretaren tenperaturara olioaren biskositatearen balioaren hurbilketa bat egingo da geroago balio zehatza lortuko delarik.

$$\left(\frac{\mu_{1w}(T_w)}{\mu_1(T_{1m})} \right)^{0,14} = 1$$

Azkenik, kanpoko kanalerako ere konbekzio koefizientea lortzen da.

$$St_1 = \frac{h_o}{C_{P1}(T_{1m}) \cdot \rho_1(T_{1m}) \cdot V_1} \quad [20]$$

non

$\rho_1(T_{1m}) \left[\frac{kg}{m^3} \right]$ = uraren dentsitatea T_{1m} temperaturarako.

Kasu honetan, h_o -ren kalkulua ez da guztiz zehatza izango, zeren eta hau egiteko ez dira hegalak kontutan hartu eta jariakinaren ibilbidea baldintzatzen dute. Hori dela eta, zuzenketa faktore baten bidez koefiziente berri bat lortu beharko dugu, hurrengo ekuazioaren bitartez.

$$h_{oi} = \frac{\eta \cdot A_E + A_B}{A_i} \cdot h_o \quad [21]$$

non

$h_{oi} \left[\frac{W}{m^2 \cdot K} \right]$ = kanpo kanaleko konbekzio koefiziente zuzendua.

$A_E [m^2]$ = hegalen azalera.

$A_B [m^2]$ = hodiaren kanpoko aurpegian dagoen azalera erabilgarria. Izan ere, hegalak hodiaren kanpoaldean egonda, azalera zati bat ez da olioarekin kontaktuan egongo.

$\eta [-]$ = koefizientearen zuzenketa faktorea.

$$\eta = \frac{\tanh \left(L_{hegal} \cdot \sqrt{\frac{2 \cdot h_o}{k_1(T_{1m}) \cdot Z_{hegal}}} \right)}{L_{hegal} \cdot \sqrt{\frac{2 \cdot h_o}{k_1(T_{1m}) \cdot Z_{hegal}}}} \quad [22]$$

Behin konbekzio koefizienteak lortu ditugula, barne hodiaren paretaren tenperaturaren lehen hurbilketa bat egin dezakegu, hasierako balio bezala lagungarria izango dena.

$$h_{oi} \cdot (T_{w0} - T_{2m}) = h_i \cdot (T_{1m} - T_{w0}) \quad [23]$$

non

$T_{w0} [^{\circ}C]$ = barne hodiko paretaren tenperaturaren lehen hurbilketa.

Behin paretaren tenperaturaren lehen balio bat lortu dugula, [12] eta [19] ekuazioetan balio zehatzago bat lor dezakegu, paretako tenperaturara dagoen jariakinaren biskositearen balioa izanda. Hau honela izanik, berriz ere burutu beharko dira [12] ekuaziotik [22] ekuaziora egindako kalkulu guztiak, h_i eta h_{oi} koefizienteen balio eguneratu eta zehatzago bat lortuz.

[5] ekuaziora buelta gaitezke orain U_i bero tranmisio koefiziente globala kalkulatzeko. Hau honela izanik, [2] ekuaziotik A_i askatuko dugu eta honekin bero trukagailuaren L luzeraren lehen balio bat lor daiteke. Hala ere, jakin beharra dago balio hauek paretaren lehen balio hurbildu batetik lortu direla. Beraz, lortutako luzera eta benetan beharrezkoa dena izan daiteke desberdinak izatea. Hau jakiteko, olioaren eta kanpo-paretaren artean dagoen bero fluxuaren espresioa erabil daiteke.

$$\dot{Q}_{truk} = \frac{(A_e + A_b) \cdot (T_{1m} - T_w)}{\frac{1}{h_{oi}} + R_{zikin}} \quad [24]$$

[24] ekuazioari esker, paretaren tenperaturaren balio berri eta zehatzago bat lor daiteke. Beraz, [23] eta [24] ekuazioetan lortutako T_{w0} eta T_w balioen arteko konparaketa bat eginik zehaztu dezakegu lortutako luzeraren balioa nahi bezain beste zehatza den ala ez. Izan ere, bi tenperatura hauen artean diferentzia ez bada txikia lortutako emaitzak ez dauka zehaztasun handirik izango. Kasu honetan, lortutako T_w balio eguneraturekin [12] ekuaziotik [22] ekuaziora bitartean egindako kalkulu guztiak berriz burutuko dira, oraingoan luzeraren balio zehatzago bat lortuko dugularik. Hau eginda, T_w tenperaturaren balio berri bat lortuko dugu, berriz konparaketa egiteko aukera izanik.


Ikus daitekeenez, kasu hau prozesu iteratibo bat da. Hori dela eta, kasu praktikoaren arabera eta pertsona bakoitzak ezarritako tolerantzia errespetatu arte errepika daiteke prozesu iteratibo hau. Zenbat eta iterazio gehiago egin, orduan eta zehatzagoa izango da bero trukagailuaren luzeraren balio. Hala ere, esan beharra dago zehaztasun handia lortzen dela 5 iterazio baino gutxiagorekin.

6.2.2 KARGA GALERAK
